

## PRENTSA-OHARRA

# Iruñeak 1.300 gimnasta baino gehiago jasoko ditu Taldekako Espainiako Gimnastika Erritmikoko Txapelketan

Nafarroako biztanleek Nafarroa Arenan jarriko diren ongi etorri eta adore esaldiak proposatu ahalko dituzte, bai eta Morean dagoen mailoten erakusketa bisitatu ere. Sarrerak [www.navarrarena.com](http://www.navarrarena.com)-en edo Baluarteke leihatiletan eskuragarri daude.

**Iruñea, 2018ko azaroaren 7a.** Dagoeneko salgai daude Taldeako Espainiako Gimnastika Erritmikoko Txapelketarako sarrerak, bai Nafarroa Arena webgunean baita Baluarteke leihatiletan ere. Hitzordua abenduaren 13tik 16ra izango Nafarroa Arenan eta Espainiako osoko klubetatik etorriko diren 1.300 gimnasta baino gehiago bilduko dira.

Txapelketa Espainiako Gimnastikako Errege Federazioak (RFEG) sustatu du eta Nafarroako Gimnastikako Federazioak (FNG) eta NICDO-k antolatu dute Nafarroa Arenaren taldearen bidez eta Miguel Indurain Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Gainera, askotariki enpresa sustatzaileak eta tokiko enpresak ditugu ez soilik Txapelketa honetan laguntzen, baizik eta Iruñeak eta Nafarroak gimnastak eta euren familiak hartzeko antolakuntza prestatzen ere.

Nafarroako biztanleek euren sinadurarekin pabilioian gimnastentzako jarriko diren ongi etorri eta adore esaldiak proposatu ahalko dituzte. Pertsona bakoitzak esaldi bat edo gehiago euskaraz zein gazteleraz bidal ditzake eta Nafarroko Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak sustatzen dituen kirolaren oinarrizko balioetan oinarritu behar da. Esaterako; laguntasuna, berdintasuna, errespetua, inklusioa eta joko garbia.

Gainera, azaroaren 28an Almudena Cid bezalako gimnastika erritmikoko izarrak jantzi dituzten AZ Maillots-ek eta Divasson Maillots-ek egindako 11 mailloten erakusketa ikusteko aukera egongo da.

Txapelketaren inguruko informazio guztia RFEG-ko, FNG-ko eta Nafarroa Arenako webgunetan aurkitu ahalko duzu. Informazio hori eguneratzen joango da parte hartuko duten klubien izenematea ixten den heinean. Abenduaren 13an entrenamendu ofizialak egingo dira eta 14an eta 15ean taldekako saioak. Abenduaren 16an, goizez, finalak jokatuko dira. Sarreraren prezioa ondorengo hau izango da: 10€ ostiralean, 10€ larunbatean eta 12€ igandean. Hiru egunetarako abonua erostekotan 28€-ko prezioa izango du.

### Nafarroa Arena: zure irudimenetik harago

Nafarroa Arena Iruñean dagoen Nafarroako erabilera anitzeko pabilioia da. Balio anitzeko eraikina da eta bertan kirol-, kultura- eta jolas-ekitaldiak nahiz ekitaldi korporatiboak antola daitezke, eskualdekoak, nazionalak zein nazioartekoak. Edukiera guztietara molda daitezke eta 11.800 pertsona har ditzake barruan. Zinema zein publizitate filmazioetarako azpiegitura ezin hobea du, eta gainera eraikin mota horietarako eraginkortasun-teknologiarik puntakoena du.

### Informazio gehiago:

Diana González  
d.gonzalez@nicdo.es  
[www.navarrarena.com](http://www.navarrarena.com)  
948066066  
#GRPamplona18